

# bidegileak



**Maurizia Aldeiturriaga (1904-1988)**

Egilea:

**AGURTZANE INTXAURRAGA**

## Bederatzi urterekin neskame

Maurizia Aldeiturriaga Zabala pandero jotzailea Zeberion jaio zen, San Maurizio egunez, 1904ko irailaren 22an. 1988ko maiatzaren 19an hil. «Gaztainen» denborakoa zela zioen berak, urriaren 22koa. Uste horretan bizi izan zen, harik eta, 1978an, zendu baino urte batzuk lehenago, jaiotza ziurtagirian irailaren 22a zekarrela idatzita jakin zuen arte. Maurizia ez zebilen hain gaizki ordea, izan ere, Zeberio eta inguruetan irailari urri lehena esan zaio betidanik eta urri bigarrena urriari.



Maurizia Aldeiturriaga Zabala (1904-1988)

Maurizia Zeberioko Egia izeneko baserrian jaio zen. Ama, Madalena Zabala Artola, zeberiotarra eta baserri berean jaio eta hazitakoa. Aita, aldiz, laudiotarra, Frantzisko Aldeiturriaga Ateo, ofizioz arotza eta hargina. Mauriziak bietatik zuela diote. Amarenak zituela altuera eta begiak, aitarenak, ordea, irribarrea eta sudurra. Izaerari dagokionez, amarena zuela lanarekiko zorroztasuna eta aitarena, aldiz, egoera latzeneri ere piperra eta gatza ateratzeko gaitasuna.



xx. mende hasierako Arratia eta inguruneko mapa

ESPAÑA  
MINISTERIO DE JUSTICIA  
REGISTROS CIVILES

N.º 1759692 /04

Folio 113

Certificación Gratuita  
Ley 10/1980, de 24-10

**ACTA DE NACIMIENTO**

NÚMERO 113  
Maurizia jaiotza  
Mauriziazaga  
Tabala.

E. la Obispos y valle de Estremadura  
del día veintidos de Septiembre  
de mil novecientos veintidos  
ante D. Juan Luis Salazar  
Jefe municipal, y D. Gregorio Pineda  
Secretario, compareció *Mauriziazaga*  
*Mauriziazaga* natural de *Tabala*  
provincia de *Tabala* de edad *veinte*  
y tres que de estado *casado* en ejercicio *laborador* domiciliado en el *caso*  
base de esta jurisdicción según acredita  
por cédula personal que exhibe, expedida por la  
alcaldía de *Tabala*

solicitando que se inscriba en el Registro civil, una niña; y  
al efecto, como padre de la misma, declaró:  
Que dicha niña nació en *Tabala* el día  
de *veinte* de *Septiembre*  
de las *veinte y tres* de la *madrugada*

Maurizairen jaiotza agiria. Bertan irakurtzen denez, Maurizia 1904ko irailaren 22an jaio zen, goizaldeko bostetan, hain zuzen ere

Neba-arreben artean gazteena zen Maurizia, guztira sei: lau neska eta bi mutil. Mari, Estefana, Kattalin, Frantzisko, Martin eta Maurizia bera.

Ume-umetatik eta bi familiatik datorkio Mauriziarri panderoarekiko zaletasuna. Bere aita Frantziskok panderoa jotzen zuen, adibidez. Neba nagusiak ere bai. Hala ere, Mauri-

ziaren lehen irakaslea, Somorrostrora ezkondu baino lehen, baserrian eurekin bizi zen amaren neba, osaba Kalisto izan zen. Mauriziak hari entzunez eta ekinez eman zituen lehen urratsak, bere gelan sartuta, isilka igande arratsaldeetan, amak Bilbotik ekarri zion pandero berriarekin.



Goian, Egia baserria. Ezkondu artean, hantxe bizi izan zen Maurizia guraso eta neba-arrebekin. Argazkia 2006koa da. Eskaileretan ageri dena Frantzisko, Mauriziaren semea. Berak dionez, lehen, sarrera albotik zeukan etxeak. Aurrealdeko balkoia oraingoa da. Beheko argazkian, etxeuko sukaldea. Honek ordea, urteak aurrera ez omen du aldaketa handirik jaso, aurpegi garbiketa, besterik ez

Bederatzi urte bete berriak eta garai hartan ohi zen bezala, neskame joan zen Maurizia, Basurtora, ganadu tratante baten etxera. Han hiru urte inguru eman ondoren, berriz ere Zeberiora itzuli eta Ugaoko «Fabrica de hila-

dos»-en hasi zen lanean, herriko beste hainbat gazterekin. Lagun giroan egin zituzten egun horietako joan-etorriak lanera, gurdian batzuk, oinez besteak, Mauriziaren koplak zaharrak eta pandero soinuak giro zituztela beti.

## Senar-emazte eta bikote

Egun horietan, hamabi urte besterik ez zituela, hasi zen Maurizia iraunkortasunez jaiegun eta festetan herriko plazan jotzen. Joakin Goti edo *Joakintxu zarrarekin*, zeberiotarra berau ere.

Urte batzuk geroago eta modu horretan, nola ez ba!, panderoa jotzen eta koplak zaharrak abesten ezagutu zuen Benantzio. Urteetan bere musika bikoteaz gain, senartzat ere hartuko zuen gizona: Benantzio Bernaola In-txaurbe. Inork asmatu ezin zuen orduan, bide gazteak Euskal Herri musikan izan den bikote bikainenetarikoa izango zirenik.

Benantzio edo *Karakol*, umetan karakolekin olgetan egiten zuelako, bertako Zirilo Arteagak jarritako ezizenez egin zen ezaguna. Honek ere Mauriziak bezala, berezkoa zuen musikarekiko sena eta grina. Bere anaia nagusi Juanen soinuarekin ikasi zuen soinua jotzen gazte-gaztetatik. Izan ere, Juan ezaguna zen Artean eta inguruko herrietan okerretara jotzen zuelako, ezkerreko eskuaz, alegia. Juanek, Arteako Laureta auzora ezkondu zenean, berarekin eraman zuen Benantzio baserri lanetan laguntzeko. Benantzio, ahuntzak zaindu bitartean, anaiaren eskusoinua hartu eta bere kontura ikasten hasi zen zortzi urte besterik ez zuenean.

Gerora, hamalau urte beteak zituela, Basauriko «Vasconia» fabrika lanean jarri zenean, Aldai soinua jotzaile entzutetsua ezagutu eta

berarekin hasi zen musika eta eskusoinu eskolak hartzen. Maurizia ezagutu zuenetik eta bihotzeko gaixotasunak jota erretiratu bitartean berarekin aritu zen beti. Artean ezaguna zen esaera: «silentzio que viene Belentzio» (Benantzio).

Hamazazpi urte besterik ez zituen Mauriziak Benantzio ezagutu zuen egunean. Benantziok berak baino bat gehiago. Domeka arratsa Zeberioako plazan. Erromeriak eztanda egin zuenean gertatu zen, biak jotzen hasi zirenean: batak soinua eta besteak panderoa. Mauriziarik Benantzioren jotzeko modu bizi eta gogorra gustatu eta elkarrekin jotzen hasteko proposamena egin zion. Izan ere, Mauriziak hasiera-hasieratik eta jotzen ibili-



Benantzio Bernaola, ezizenez: *Karakol*. Gazte denborako argazkia

ko zen urte guztietan, neurri-neurriko bikoteak nahi izango zituen beti ondoan: bera bezain musikari finak eta lanarekiko zorrotzak. Benantziorengan ez zuen aitzakiarik ikusi.

Modu horrexetan, egunak joan, egunak etorri, harantz eta honantz plazarik plaza ibiliz, kopla zahar, pandero eta soinuaren musikak beste era bateko soinu batzuk ere astindu zituen: bihotzarenak. Senar-emaztegai gisa zazpi urte eman eta gero, 1927ko azaroaren 5ean ezkondu ziren Maurizia eta Benantzio Zeberioako San Tomas elizan. Eta Artean jarri bizitzen: Elixabetiko San Migel basilizaren parean dagoen baserrian.

Ezkon bizitzak ez zituen euren asmoak aldatuko, ordea, ezta gutxiago ere, eta, musikari dagokionez, ezkon aurretiko bizimodu bera eramaten jarraitu zuten. Zornotzako Karmenak, Urkiolan San Antonioak, Durangoko San Faustoak, Dimako San Pedroak... Guztietan prestu abarka eta baserritar jantziak soinean zituztela jendearen gorputzak dantzara jartzeko. Baina gainontzeko ordu eta egunetan gogor lan egiten zuten: Mauriziak baserrian eta senarrak fabrikari.

Benantziok fabrikari eutsi egingo zionez, Mauriziak zeraman baserriaren ardura. Emakume indartsu eta oso langilea gogoratzen du Frantziskok, haren semeak. Eta irriz kon-



Mauriza eta Benantzio familia arteko ospakizun batean. Bikoteak ederki jakin zuen uztartzen arlo pribatua eta publikoa



Argazkian bikotea Artea-Elixabetin, euren ezkon etxea izandakoaren aurrean, errentari eta auzokoekin

tatzen du maiatzeko San Isidrotan, bere amak inoren laguntza barik, hamalau gurdikada sats banatu zituela Dimara jotzera joan aurretik.

Ezkondu eta urtebetera jaio zen Frantzisko, euren seme bakarra. 1928ko urriaren 10ean. Frantziskok, dioenez, amaren tititik ezagutu zituen berak festa doinuak. Izan ere, Maurizia eta Benantzio ederki moldatu ziren ume jaio berriarekin eta eurekin eramaten hasi ziren plazatik plazarako jardunaldietara. Frantzis-

kok, gailetak janez, arazorik gabe ederki loak hartzen ikasi omen zuen ama eta aitaren soinupean.

Durengon bazkaldute,  
Mañaritik gora  
Urkiola goaz morena  
San Antoniora (bis)

Urkiolara joanda  
Zapatak urrutu(bis)  
Aita San Antoniok morena,  
Berriak eingotzuz. (bis)





Frantzisko semearen jaunartzeko familiarteko argazkia. Maurizia eta Benantzio zutik. Frantzisko semea erdian eta haren ondoan Mauriziaren ama, Madalena Zabala eta aita, Frantzisko Aldeiturriaga (1936)

## Gerra garaiak

Beste asko bezalaxe Mauriziak eta bere familiak gerraren ondorioz alde egin behar izan zuten etxetik 1936an. Zeanuritik, fren-tetik ihesi zetorren jendearekin batera abiatu ziren Maurizia, zortzi urteko semea eta Benantzio zaharra, aitagarreba, etxeko animaliak eta behar-beharrezkoak ziren trasteak gurdian hartuta. Arratiako baserria itxi eta Zeberioko Egia baserrira, amarenera itzuli ziren. Benantzio, Mauriziaren senarra ostera, bertan geratu zen intendentzia lanak betetzen.

Gutxi iraun zuten Egian, aste batzuk besterik ez. Nazionalak gero eta hurbilago zeudela, Basurtorantz abiatu ziren. Basurtotik Somorrostrora, osaba Kalistoren etxera, eta handik Gibajara (Santander).

Zoritxarrak hasi baino ez ziren egin Maurizia eta bere familiarentzat, izan ere, gutxira, Benantzio, senarra, preso hartu zuten. Frantziara ihes egiteko gizona itsasontzian prest zegoela, motorra ezin martxan jarri. Une latz hartan, Benantzio bera hasi zen konponketa lanak egiten, urteetan Arteako garijoteko makinarekin mekaniko eta arduradun ibili baitzen. Ahaleginaren ahaleginez, itsasontzia martxan jartzea lortu zuenean, Benantziok



«Dima inguruetan gogor egiten jarraitzen dau arerioak»  
(Eguna 1937-V-25)

makalaldia sentitu eta lurrera erori zen, ziplo. Une horretaz baliatu ziren gizona lehorrean uzteko. Egun berean preso hartu eta Santoniako kartzelan espetxeratu zuten nazionalak.

Gauzak honela, gorriak eta bi ikusten egon arren, Mauriziak ez zion bere buruari atsedetik hartzen utzi eta ez zegoenetik ere hark jakin zuen bizitzari ausardiaz eta baikortasunez begiratzen.

Ez zen urte erdia pasatu, Mauriziak bere semea eta Benantzio zaharrarekin batera etxera itzultzeko erabakia hartu zuenean. Berriro ere traste guztiak gurdian kargatu eta Artearantz abiatu. Ailegatu zirenean ez zuten gauza onik aurkitu: etxeko atea iltzatuta eta bertan geratzeko debekua. Halabeharrez, Zeberrioko Egiako etxean amaitu zuten be-



Mauriziaren panderoetako bi

rriro ere. Ez zuten onik izango, ordea, Arratiako euren etxera itzuli artean. Egun gutxi batzuk geroago, Benantzio zaharrak, Mauriziaren aitagarrebak, tranbia hartu eta Arratiara ailegatzea lortu zuen. Han aste batzuk ostatuan egin ondoren, azkenean beharrezkoa zuen baimena eskutan zuela Arratiako etxeko atea irekitzea lortu zuen. Baina Benantziok, Maurizia eta bere biloba berarekin nahi zituen. Gizona makal zebilen osasunez, eta aitzakia hori zela medio, hilabetera Maurizia bere ezkon etxean zen berriro ere.



Frantzisko, Mauriza eta Benantzioren semea soldadutzan. Frantziskok gazte-gaztetatik akordeoi kromatikoa ikasi zuen jotzen

Okerrenak, hala ere, Mauriziaren senarrak eraman zituen. Santoñako espexera bisita egiten zionean, Maurizia ikaratuta itzuli zen etxera. Ehun eta hogeikilotik gora zen gizona, berrogei eta hamazortzi kilorekin aurkitu zuen. Bisita hura izan zen Mauriziak senarrari egin ahal izango zion bakarra. Benantzio Santoñatik Cadiz-era, Puerto de Santa Mariara eraman zuten. Handik Galiziara, Ourenseko Celanova herrian dagoen espexera.

Garai gorriak guztientzat, Mauriziarentzat ere bai. Gerrak iraun zuen hiru urte luzetan, senarra kartzelan zuela eta familia osoa bere ardurapean, Mauriziaren su bazterrean



Maurizia eta Benantzio, lanerako prestu

ez zen pandero soinurik entzun. Gerra amaitu eta Benantzio aske etxera itzuli bitartean gordeta eduki zituen biak: hainbeste behar eta maite zuen panderoa eta bere senarren eskusoinua.

Baina zorionez gerra zibila ere amaitu egin zen eta hiru urte kartzelan eman eta gero, Benantzio ere onean etxera itzuli zen.

Gerraostea, garai hobea, baina ez hain ona ere. Benantziori adibidez, ez zioten hasieran behintzat, «Vasconia» fabrikan zuen lanpostura itzultzen utzi. «Rojo separatista»-ren etiketa gainean zeraman eta debekatu egin zioten eskubidez berea zen lanpostua. Hori gutxi balitz, urte betera Mauriziak, aitaren heriotza bizi izan zuen —ama geroago zendu zen, 1949an— Hala eta guztiz, garaiak lagun ez zirela jakinda ere, Mauriziak eta Benantziok ez zuten etsi. Berrito ere jotzen hasi ziren herriko plaza eta inguruko herrietan, lehen bezain grinatsu eta profesional, arlo pribatua eta publikoa modu orekatsu eta naturalean uztartuz. Geroago, Leon Bilbao, herriko albokariarekin osatu zuten hirukotea. Eta bihotzeko gaixotasunak jota, Benantzio etxean geratu zenean, Fasio Arandia trikitilariak hartu zuen haren tokia. 1964ko kontuak dira hauek, musikari buru-belarri eskainitako hogeik urteko ibilbide luze eta arrakastatsu baten hasiera baino ez. Fasio hil ostean, Basilio Undagoitia soinu-jole, pandere-teru eta trikitilariak jarraitu zuen Maurizia eta Leonekin.

## Umoretsu eta arduratsua

Mauriziak gauza ondo eginak atsegin zituen. Maila pribatuan zein profesionalen, borobiltasuna lortu artean ez zuen etsitzen. Umoretsua bazen ere, lanean zegoela ez zituen txantxak gogoko eta perfekzioa lortu artean ez zuen atsedenik hartzen. Buruargia, aldarre ona eta sendotasuna ziren bere ezaugarri onenak bizitzari ekiteko. Eguneroko betebeharrei aurre egiteko zuen gaitasunak ekarri zion emakume borobilaren fama. Betidanik, Benantzio senarrarekin edo Leon eta Fasiorekin plazarik plaza emandako urte guztietan, adibidez, bera arduratu zen beti



Miren bilobaren sendotza eguneko argazkia. Maurizia amabitxi izan zuen. Mauriziaren eskuinean, Juan Mari Uriarte, orduan Bizkaiko gotzaina, Miren biloba eta Juan Jose orduko parrokoa. Ezkerrean Mirenen lagun bat eta haren ahizpa Aintzane (1976)

jardunaldi bakoitza burutzeko alde zurretiko lanekin: enkarguak hartu, besteekin harremanetan jarri, joan-etorriak antolatu, eta abar.

Emanaldia zuen egunetan astiarekin ibiltzea nahiago zuen, emanaldi bakoitza bat eta bakarra baitzen beretzat. Mauriziak dena ematen zuen panderoaren astindu bakoitzean, dena eman ahots kordaz, dena eman plazan ikustera eta bere «aupekin» dantza egitera hurbiltzen zen jendearekin bat egiteko. Horrexegatik beharrezkoa zuen jotzen hasi aurretiko



Benantzio, oraindik sasoi bete

ordu horietan bere burua eta barrenak lasaitzearren, puntu-puntu jartzearren, astiarekin ibiltzea.

Inora joateko beti jantzi tradizionala erabiltzen dute, baita estudioan grabatzeko ere. Horrelaxe gogoratzen dituzte bai Juan Mari Beltranek eta bai Ruper Ordorikak beraiekin grabatzen aritu ziren egunetan. Plazan jende aurrean jotzen baleude bezala, beti bezain itxura zaindu, indar eta berotasunarekin.

Ohitura unibertsala bada ere, Mauriziak ere ez zuen inoiz huts egiten: jotzen hasi aurre-



Ameriketako bilobek (ezker aldean) egindako bisitaren aitzakian ateratako argazkia. Mauriziaren eskuinean, Teodora erraina, Aintzane biloba eta haren seme jaio berria (1985)

tik, berdin zuen non, etxean ondo tolestu eta poltsan gordetako egunkaria atera, hari orri batzuk kendu eta sua ematen zien. Su horren beroak puntu-puntu uzten zion panderoaren larrua: tinko-tinko. Hastea besterik ez zen falta: Aupa Maurizia!!

*Artolak deuko, Artolak deuko,  
Artolak deuko fama,  
beria dauela, beria dauela  
mundu guztiko jentea (bis)  
Aupa!  
Goizian Parisen, gauean Parisen,  
Parisgo kallean luzea,  
axe kallea akabeu ezker  
Atzeko zaldie neurea (bis)  
Aupa!*

Fede handiko emakumea zen Maurizia. Bera buru zela, egunero arrosarioa erreztatzeko

ohitura zuen etxekeekin. Igande eta jaiegun guztietan ere mezatara joaten zen familiarekin. Berak zortzi eta erdietakora joateko ohitura zuen. Emanaldia zuen egunean, ostera, zazpietakorako abiatzen zen etxetik, zazpi eta erdietakora garaiz iristeko.

Lo gutxiko emakumea zen Maurizia. Semea ezkondu eta harekin bizitzen jarri zirenean ere, bera zen normalean lehena altxatzen. Bost eta erdietarako kortan egoten zen esneak batzen, sei eta erdietan ate aurrean zegoen esne-saltzaileari prestu atenditzeko. Gero ortura, jorran. Txistuka eta kantuan egiten zituen hangoak ere. Gaez ere, begiak bildu ezinik zebilenean isilean kantatzen omen zuen loak hartu arteraino.

Esku aparta zuen ogia egiten ere. Eta halaxe entzutea ere gustatzen zitzaion: ogi espeziala egiten zuela, alegia.

Bere beste ohitura edo zaletasun handia kartetan egitea zen, briskan batik bat. Benantzio, senarra eta biak ia egunero jokatzen zuten. Serio hartzen zuen Mauriziak hau ere, bizitza horretan joango balitzaio bezala. Karakol, senarrari, ordea, zirikatzea gustatu. Honek sutan jartzen zuen Maurizia. Zeberiotarrei buruzko txantxak ere ernegarazi egiten zuten. Piperra eta gatza ez zen sekula falta izan euren artean.

Benantzio zendu zenean, 1978ko urtarrilaren 25ean, Mauriziak inoiz bizitako makalaldi handienari aurre egin behar izan zion. Fami-

lia eta lagunak gain-gaiean izan zituen, ordea, eta beraien laguntza eta babesari esker, Mauriziak aurrera egiteko kemena berreskuratu eta Benantziok nahi izan zuen bezala, berriz ere plazara itzuli zen.

Hauexek senarrari abesten zizkion kopletariko batzuk:

Karakol Arteakoa,  
Soinulari famosoa  
Mauriziak makina bat bider  
Jotziola panderoa

En el río se crían peces,  
En la orilla caracoles,  
En Castillo Elejabeitia  
Se crían todos mis amores.



Maurizia eta Teodora, erraina, auzokoekin kartetan

## Mauriziaren musika bikoteak

Karakol, Benantzio Bernaola senarraz gain, Mauriziak izan zuen beste bikoterik plazan laguntzen:

Joakin Goti: *Joakintxu*, Zeberioko Etxezarreta auzoan jaio zen abenduaren zortzian hogeigarren mende hasierarekin batera (1900-1997). Aitak erositako trikitixarekin bere kasa ikasi eta hamasei urte bete orduko Maurizia eta biak Zeberioko erromerien jaun eta jabe egin



Jotzen hasi aurretiko ezinbesteko lana: panderoaren larrua berotu

ziren. Gerora bera izan zuen sarri ondoan, hala ere, Paula Arroitia eta Antonio eta Pepito Astondoatar anaiak ere ibiliak dira berarekin. 1973an Zeberioko herriak omenaldia egin zion. Ondoren etorri zen lurretan jasotakoa, 1979an, hain zuzen ere. Azkena 1985ean, Mar-kinan ospatu zen Euskadiko Trikitilarienean.

Leon Bilbao Ibarretxe, albokaria: Leon Arteako Presalde baserrian jaio zen 1916ko abenduaren 19an. 1990ean hil zen. 12 urte besterik ez zuela plazaratu zen Artean, aita, Jose Mari maisu izan zuela. Harrez geroztik, gerrateko urteetan izan ezik, alboka jotzen jarraitu zuen inguruko trikitilari eta pandero joleekin. Berehala osatu zuen taldea Maurizia eta honen senarra Benantziorekin. Ondoren, Benantziok utzitakoan, Fasiok hartu zuen haren tokia.

Leon, alboka eta panderoa jotzeaz gain, maisu itzela zen albokak egiten. Hau ere aitak erakutsi zion. Ospetsuak egin ziren mundu zabalean Leonen soinu goxoko albokak.

Bonifazio Arandia trikitilaria: *Fasio* ezizenez ezagunagoa, Igorreko Elezalde auzoan jaio zen 1909an. 1987an zendu. Pedro Egia *Popponek* Arantzazun zuen bizartegian hasi zen Fasio musugitarraren lehen notak entzuten. Hamalau urterekin, eta Jose Zurinaga pandero jotzailea bikote zuela, Igorren bertan plazaratu zen eta harrez geroztik Arratiako hainbat jai eta auzotan jo zuen. Hala ere, gerra garaian zituen bi trikitixak lapurtu egin zizkieten eta urte luzetan geldi egon bazen



Leon Bilbao. *Maurizia, Leon eta Basilio*  
CDtik hartutako argazkia (1987)



Basilio Undagoitia *Basilio Txiki, Maurizia, Leon eta Basilio*,  
CDtik hartutako argazkia (1987)

ere, 1971n Leioan ospatu zen txapelketan lehen saria irabazi zuen. Handik urte batzuetara Benantzio, *Karakol*, erretiratu eta hain ospetsua egin zen hirukotea osatu zuen Maurizia eta Leonekin.

Basilio Undagoitia: *Basilio Txiki* soinujole, pandero jotzaile eta trikitilaria 1907ko otsailaren 2an jaio zen Iborriko Egizabal baserrian. 1988an hil. Soinu jotzailea bezain dantzari trebea, batez ere fandango eta arin-arinetan. Gazte-gaztetatik musugitarra eta panderoa jotzen ikasi eta herriko erromerietan hasi zen. Hogeita hamazazpi urte zituen soinujole gisa bere kontura jotzen hasi zenean. Ordura arte, inguruko soinu jotzaileei panderoaz laguntzen



Bonifazio Arandia *Fasio*

ibili zen batik bat. Berrogeita bost urterekin Durangora etorri bizitzen eta harrez geroztik hainbat eta hainbat erromeria eta jaialditan hartu zuen parte. Hasieran Eduardo Egiarte, Felisa Arrizabalaga eta Juanita Gorroñorekin. Geroago Modesto Solozabalekin, baina gehienetan Maurizia eta Leonekin egin ohi zuen.





Joakin Goti, *Joakintxu*, lagun giroan katuan, Santa Ageda bezperaz (1946)



Garai bateko eredu

## Panderoa oinarri

gun Maurizia Aldeiturriaga eredu baten irudi bihurtu da. Mauriziak, batez ere, Leon eta Fasiorekin, trikitixa edo herri-doinu eta kantuera horren munduan ezagutu den «hirukoterik» bereziena osatu zuen. Izan ere, oso momentu inportantea tokatu zitzairen bizitzea. Gerraostean, Bizkaian batez ere, trikitixa baztertu egin zen. Soinulari gehienak, eredu kromatikoa hartzen dute esku artean. Euskal kutsua edo usaina zeukan edozer baztertu eta itzalean egon baitzen hirurogeita hamarreko hamarkada arte. Franco hil ostean, hasi zen berriz ere loraldia. Herrietako jai batzordeak antolatzen



Garaiko hiru pandero jole handi, bat eginda. Maurizia erdian, haren eskuinean Felisa Arrizabalaga eta ezker aldean Joanita Gorroño


hasi ziren jaialdiek izan zuten horretan zer ikusirik. Ezin ahaztu baserritarren azokak ere. Han ere, ohitura bihurtu zen trikitixa eta panderoaren soinua. Maurizia eta berekin Leon eta Fasio —geroago etorri zen Basilio— loraldi horren lore ederrenetakoak izan ziren. Euskal kulturgintzak ondare ordain ezina zor die, bertako, berezko izan ziren zenbait kulturaren osagai kili-kolo zeudenean,

desagertzeaz, itzaletik atera, berreskuratu eta plazaratu egin baitzizkiguten. Eurak bizi eta bihotzez sentitzen zutena eskaini egin zizkiguten. Eurek erakutsi ziguten balioa ematen. Eurei esker pasatu zen mundu hura bazterturik egotetik eredu izatera. Eurak ziren trikitixa zaharra.

Baina trikitixa ezer baldin bada, panderoa da. Alboka, gitarra, musu-soinua, eskusoinua... horien guztien lagungarri bakarririk ez, oinarri ere badela esan daiteke. Panderoaren erritmoan egiten da kanta, egiten da dantza. Erritmoa eramateko etekin handiko tresna izateaz gain, modu batean, jotzeko ez horren zaila izanik, baserriari lotuta egon den tresna

izan da beti. Bertan lortutako elementuekin eгина eta batez ere bertan ospatzen ziren batzar eta lan-ekitaldiak animatzeko erabiltzen zen: artaburuak aletu, haria kardatu, etxeko festak alaitu, eta abar.

Euskal Herrian hala ere, Kantabrian, Asturiasen, Portugalen edo Galizian ez bezala, gutxitan ikusi da plazan pandero jotzailea bakarrik. Normalean trikitixa edo albokarekin bikote eginez agertu da beti. Arratia aldean, ostera, Bizkaiko beste bazterretan ez bezala, lehenago nagusitu zen albokaren soinua erromerietan soinu txikia baino. Dena dela, batak edo besteak panderoak markatutako erritmoari ekiten dio.



*Euskal Herriko soinu tresna diskoa grabatzen Juan Mari Beltranen zuzendaritzapean (1983).  
Orduko hartan ere jantzi tradizionala jantzita azaldu zen*

*Triky Punk Taldea: Elene Sustatxa eta Elena Bezanilla bilbotarrak trikitixa arloa irauli zuten (Berria 02.02.01)*



Maurizia zerbait bazen, indarra zen

Mauriziaren garai inguru horretakoak dira beste pandero jotzaile hauek ere: Primi Erosarbe gipuzkoarra, hau ere oso ezaguna beti goitik abesteko ohitura zuelako. Rumualda Zuluaga (1913) Galdakaon jaioa; Leona Ziarrusta (1886) zeanuritarra; Felisa Lekue (1878) eta Frantzisca Larrinaga (1861) dimarrak; Paula Elorrieta (1901), Arratian jaioa; Kattalin Urigoitia (1860) Elexabetikoa. Tomasa Etxebarria (1889), Zollon jaioa; Joanita Gorroño, Andresa Ibarondo (Asua, 1906).

## Naturaltasunaren ordezkariak

Maurizia zerbait bazen, indarra zen. Asko bariarik, ospetsua bihurtu zen bere ahotsa. Berarekin egiten zituen jokoak. Ahots grabea zuen emakumeak, sendoa, basatia, berehala harapatzen zaituen horietakoa. Behetik kantatzen hasten bazen ere, goitik amaitzea gusztatzen zitzaion, oktaba bat igo eta abestia goitik errematatu. Leonen albokak bezala egiten zuela kantuan diote, albokaren soinuaren bat egin eta plazako txoko eta bazter guztiak jai giroz blaitu arteraino kantuan.

Baina Maurizia eta harekin Leonek zerbait lortu bazuten, jendea modu naturalean harapatzea izan zen. Pentsaera eta izaera askotako jendea, gainera. Zur eta lur utzi zituen, adibidez, garaiko Euskal Rockaren ordezkariak. Izan ere, eurek egin nahi zutena emakume harengan bilatu zuten modu naturalean. Bere ahots basatia eta primitiboarekin eta batez ere gorputz osoko azaletik zerion indarrarekin txundituta, batek baino gehiagok arrastoa jarraitu zion. Desagertutako *Hertzainak* taldeko Josu Zabalak edo berdin garaiko *Kortatuko* Fermin Muguruza eta abar luze batentzat, garaiko punki mugimenduentzat alegia, Mauriziaren abesteko era askatua eredu bihurtu zen.

Maurizia eta Leonengandik ikastea tokatu zitzaielako esaten du adibidez Josu Zabalak (*Hertzainak*): «*Sid Vicius*-en aurrean Maurizia erre-

gina bat zen eta zeharo koherenteagoa bere ibilbidean. Bere ustetan, jende gutxi jakin du dakiena hain modu naturalean erakusten. Naturaltasunaren ordezkariak ziren. Eta eurak, punki mugimenduaren ordezkari gisa, naturaltasun hori aldarrikatzen zuten uneoro. Izan ere, Maurizia biluztu egiten zen abesteko. Ziur aski mikrofono barik abesten oso ohituta zegoelako, dena ematera ohituta inolako babes edo euskarririk gabe. Dena eman beldurrik gabe. Eta nahiz eta eurek beste musika tresna batzuk erabili, beraien kantaera eta espresio bidea jarraitzen zuten, baita barneko odolaren funtzionamendua ere. Euskal Rockarentzat Maurizia beste garai bateko punkirik punkiena izan zen».

Aipatu bezala, Fermin Muguruza abeslaria ere miresle sutsua izan da betidanik. Horren adierazgarri dira esaterako 1985ean *Kortatu* taldeak izen bereko bere lehen diskoan, *Tolosako inauteriak* delako abestian egindako erabilpena. Abestiaren sarrera gisa, Mauriziaren ahotsean eta haren panderoaren erritmoarekin, Leon eta Basilio lagun dituela, honako koplak hau entzuten da:

Gizonak behar badau bere deskantsue  
 Andrea hartu deiala zarra ta antzue.  
 Andrea hartzen badu gazte umetsue,  
 Faltako jako beretzat prentsue, beretzat prentsue.  
*Aire!!*

## Koplaría

Bizkaiko koplak zaharretan, hiru sail nagusi izenda ditzakegu Xabier Amurizaren ustez: haur-koplak, eske-koplak, eta erromeria-koplak. Saillakapen horren arabera, Mauriziak abesten dituenak, gehienbat, erromeria-koplak dira.

Esango banitu esango (bis)

Ai, enaz isilik egongo

Zeberioiko neskarentzat

Ai, herri gogorra da Orozko (bis).

Bizkaiko koplak zaharren tradizioan ugariak haurkoplak, gainera. Koplak hauek dantzarakoak, erromeriakoak dira. Musika tresnaz lagunduak izaten dira: alboka, dultzaina, biolina, soinua eta panderoa, baita pandero hutsa ere, edo beste perkusioren bat. Mauriziak panderoz eta trikitixa edo albokarekin laguntzen ditu. Bestalde, koplaren testuak laburrak izateaz gain —puntu biko edo hirukoak, gehienez— zati errepikatuak ditu, dantza berak dituen bueltak bezala. Erritmoari dagokionez, bi erritmo dira nagusiak: binarioa



(porrusalda; testu laburrak), eta ternarioa (trikitia, testu luzeagoak).

• Porru binarioaren adibidea:

Hamar hamaiketako eguzki beroa (bis)  
ama buruen min dot, etxera banoa  
ai, ai, ai... etxera banoa.

Hamar hamaiketako eguzki beroa.

Ama buruen min dot eta esan aitari (bis)  
Gaubeko errondeak eindostela neuri  
Ai, ai, ai... indostela neuri  
Ama buruen min dot eta esan aitari.

• Jotea, hirukoa:

Abadiño San Blasetan  
Ai neska zarrak bentanetan  
Ai mutil zarrak engañetan,  
Mutil zarrak engañetan  
Ai neska zarrak bentanetan

Hauetz gain, salbuespenak salbu, koplak bakoitzak bere osotasun indibiduala dauka. Bakoitza pieza ale soltea da. Eta independentzia horren ondorioz, koplariak nahi dituen erara ordena ditzake, zentzurik galdu gabe. Ez dago sortaren garapenik. Dantzarakoak dira, ez istorioak edo diskurtsoak kontatzeko.

Kopla hauek ahoz aho zabaldu dira gaur arte-raino. Horrexegatik hitzak egokituz doaz to-kira edota kantatzen duenaren modura. Izate-ra gipuzkoarra den ondorengo koplak adibidez, honelaxe entzuten da Mauriziaren ahotan:

Ama zuriak neuri  
Ondotik pasauta,  
Ai, ama zuriak neuri  
Ondotik pasauta  
ez dit barbarik egin  
Ondotik pasauta.  
Ai, aia, ai... burua jirauta.



Mauriziaren diskagrafia



## Plazarik plazakoak

Ahaztu ezinak Axpe-Arrazolan, Mendigoikoa jatetxean egindako hainbat eta hainbat ekitaldi, lehendabizi Benantzio senarrarekin eta bera hil ostean Leon eta Fasiorekin. Igandero, larunbatero, ezkontzak zirela edo enpresa batzarrak, ospakizun egunetan ezinbesteko bihurtu ziren bertan Mauriziaren ahots eta pandero soinuak. Mendigoikoa jatetxea bihurtu zen urte askotan euren meka.

Baina, Arratiako trikitixaren soinuak —Ruper Ordorikak, «Maurizia, Leon, eta Basilio» (Elkar-Triki 95) CDan aipatzen duen bezala— lau puntu kardinalak mugatuta; Urbina (hegoaldea), Abadiño (ekialdea), Andraka (iparraldea), Zeberio (mendebaldea), gutxi barik zabaldu ziren Bizkaiko beste txoko eta bazter guztietara, batzuetan bi emanaldi ere eskainiz herri ezberdinetan egun berean. Gipuzkoara ere sarri eraman zituzten, baita Araba eta Iparraldera ere. Madrilen eta Parisen ere izandakoak



dira. *Dindirri* eta *Andra Mari* dantza taldeekin ere hainbat saio egindakoak dira.

Aipagarria ere bai, telebistan egin zuen saiakera. 1986 inguruan izan zen, garai hartako «Caja Vitoria»-tik hots egin ziotenean iragarki bat egiteko. Hango hartan jantzi tradizionala armarrian utzi eta hiriko emakume dotore eta peto-pettoa bihurtuta ikusi genuen Maurizia.

Bestalde, bere irudia hainbat aldiz erabili izan da trikitixa edo folk musikari lotutako ekitaldi bat baino gehiago iragartzeko. Horren adibidea, Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiak birritan erabili duela bere irudia. Lehena 1991n, VII. edizioan, esku-programaren irudiaren oinarri zela. Bigarren aldiz 1994an, X. edizioan. Orduko hartan, kartelean agertu zuten bere irudia, baita Fudurako frontoian jarri zuten eszenatokiaren atzealde osoa hartzen zuen muntaian ere.

Musikariek ere behin baino gehiagotan hartu dute Mauriziaren ahotsa eta euren kanturen batean erabili. Goian aipaturiko *Kortatu* taldearena adibidez; 2004an ere, Iker Goenagak



Mendigoikoa jatetxea, Axpe-Arrazolan

Txikitxuterik diskoan Maurizia aurkezten du kantari izen bereko koplakantatzen.

Urte berean Pop eta Rock doinuak uztartzen dituen *Urgabe* taldeak, bere azken disko (Edan Hemendik) lehen kantan Mauriziaren ahotsa entzuteko aukera ematen digu. Izenburua: «Agur Maurizia».

Beste modu batera bada ere, oraintsu, Imun-tzo eta Belokiren Trikisia disko lehen kan-

tuan, Jon Sarasuaren hitzetan, egiten zaion aipamena Mauriziari: «... neskazaharrak bentanetan, Mauriziaren kantuak euskaldunen arimetan...[...] Maurizia Maurizia, Bizkaiaren garrasia».

Trikitilarien artean ere, Mauriziak, txaloak astindu zituen. Ezaguna egin da zaleen artean Andrakako Rufino Arrola trikitilariak eta Mauriziak egin zuten balentria egun berean hiru sariketatan irabazle suertatuz. Kontakizuna Xabier Amurizak egiten du berak idatzitako *Rufino Arrola, Vulkanoren atzamarrak* liburuan (2002).

Hauek guztiak eta gero, gutxik egiten dute duda, Maurizia, Euskal kulturgintzak izan duen eta bizirik dirauen harribitxia denik. Haren indarra, haren aupadak gure memoriaren zati bat dira eta halaxe jarraituko du gizaldiz gizaldi. Inoiz baino biziago, inoiz baino miretsi eta maitatuago.



Erromoko Santa Eugenia Eskoletan		Fadurako frontoietan	
IRAILAK 10	ETXAMENDI TA LARRALDE TAPIA TA LETURIA	IRAILAK 12	KETAMA • TOQUINHO
		IRAILAK 13	THE BARELY WORKS THE OYSTER BAND & Friends JUNE TAYLOR y MONY MILEOD
IRAILAK 11	IZUGARRI TXOMIN ARTOLA / AMAIA ZUBIRIA	IRAILAK 14	RUPER ORDORIKA • HAY LEMA

GETXOKO KULTUR ETXEA  
BILBA DE KULTURA DE GETXO

VI FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLK DE GETXO - GETXOKO VII. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA

Getxoko Folk Jaialdiak 1991ko VII. edizioan eta 1994ko X.ean esku programan eta kartel iragarkian, hurrenez hurren erabiltako irudiak



## Omenaldiak

lurretako Jai batzordeak ohitura gorde du urtero 1974tik trikitilari, albokari, dultzainero, edo pandero jotzailereren bat edo gehiago omentzeko. 1976an adibidez, Benantzio *Karakol* omendu zuten. Mauriziak berak jarri zion egun euritsu hartan txapela senarrari buruan.

1982an Mauriziaren urtea izan zen. Omenaldian ezin falta ziren Leon, Fasio eta Basilio. Ondoan izan zituen ere, pandero jole, trikitilari, dultzaineru eta musikariz osatutako zerrenda luze bat: Juanita Gorroño, Rufino Arrola, Kepa Junkera, Pablo Apraiz...

1996ko abenduaren leian, hil ostean, Artea-ko Udalak eta Gorbeia-Urkiola partzuergo turistikoak, Kepa Junkeraren laguntzaz, omenaldi beroa eskaini zien Maurizia eta Leon. Egun osoan ekintzak bata bestearen atzetik egon baziren ere, bi izan ziren nagusi bertan: euren omenezko eskulturaren desestaltzea eta iluntze aldean ospatu zen jaialdia musikari eta kantari zerrenda ikaragarri batekin. Han izan ziren Mikel Laboa, Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Ruper Ordorika, Tapia eta Leturia, Maixa eta Itziar, Hiru-Truku, Natxo de Felipe, Anton Latxa eta Bixente Martinez (Oskorri), Xiradela, Ibon Koteron eta Kepa Junkera. Jaialdiko unerik hunkigarriena hala ere, Frantzisko Bernaolak, Maurizia eta Karakolen semeak, eszenatokira igo eta amaren ohorez akordeoia jo zuenean iritsi zen.



lurretako Jai Batzordeak Benantziori eskainitako omenaldia. Senar-emazteak muxu hunkigarrian (1976)




San Mames jendez gainezka *Bai euskarari* jaialdian. Taula gainean dira Maurizia eta Leon. Jaialdi osoaren zuzeneko grabaketa bi kasetetan bildu zen (1978-6-16)



Frantzisko, Mauriziaren semea, eta haren alaba Miren eta Maite etxeko ospakizun batean ama eta amamaren arrastoari eutsiz

2005eko abenduaren 30ean Zeberioako herriak, bere jaioterria eta urteetan bizileku izandakoak, omenaldi xume bat eskaini zion Mauriziari. Familia osoa bertan zela Mauriziaren garrasiak bihotzak astindu zituen beste behin ere.

Semea eta bilobak musikariak. Musika gertutik bizitakoak behintzat bai. Semeak, Frantziskok, oraindik ere akordeoia jotzen du etxeko ospakizunetan. Bilobetariko batzuek ere, besteak beste, panderoa eta trikitixa astintzen dute amamaren arrastoari eutsiz. Hala ere, Maurizia, ama eta amama izan zuten lehenik, artista paregabea gero.



Artean, 1996an, Maurizia eta Leoni eskainitako omenaldiko esku programa eta omenezko eskultura



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Bernaola Etxebarria familiari
- Eta baita Tiliño, Kepa Urraza, Juan Mari Beltran, Trikitixa elkarteak, Xabier Amuriza, Jon Etxebarri, Joakin Gotiren familia, Josu Zabalari ere

### Diskografia

- *ARRATIA. Herri Musika Sorta 15.* LP. Edigsa, 1976. Benantzio Bernaolaren bi joaldi barru: «Martxea» (Trad.) 1:51 eta «Porrue» (Trad) 1:42.
- *Herrikoa musika.* LP Movie Play, 1977. Mauriziak Leonekin batera hiru korte ditu: «Jotea» (Herr./Maurizia) 2'07, «Porrusaldea» (Herrik./Maurizia) 1'37 eta «Biribilketea» (Herr./Maurizia) 4'42.
- *Bai euskarari jaialdia.* 1978-6-17 San Mames. Kasetea. Partaideak: Pantxoa eta Peio, Iriondo, J.M. Llona, Aita Villasante, J.L. Davant, Leon eta Maurizia, Dulzaineros de Alava.
- *Euskal Herriko soinu-tresnak.* LP eta kasetea, Kea, 1985. Mauriziak Leonekin batera aurkezpena eta bi korte ditu: «Porrusalda buelta bikoak» (herrikoia) eta «Martxea» (herrikoia). 1991n CDan berrargitaratu zuen Elkarrek.
- *Maurizia, Leon eta Basilio* CD Elkar-Triki 95. Hil baino hilabete batzuk lehenago grabatua, 83 urte beteta zituela. Lehenago argitaraturiko bi LP batzen ditu (32 pieza):
  - Maurizia Leon eta Basilio* LP. Elkar, 1988.
  - Alboka eta Trikitixa. Leon Maurizia eta Fasio* LP. - Xoxoa, 1979.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2454-1 (Lan osoarena) 84-457-2458-4
L.G.:	BI - 1850-06

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística